

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako ikastetxeek softwarea programatzen ikasiko dute Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailetan

Iribas kontseilariak programa pixkanaka ezarriko dela esan du Iruñeko Planetarioan egin diren robotikako tailer batzuetara egindako bisitan.

Viernes, 25 de abril de 2014

Hezkuntza

Departamentuak softwarea programatzeko (programa informatikoak) proiektu erraz batzuk egitea gehitu du Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailetako Matematika jakintzagaiaren curriculumean, Erresuma Batua, Estatu Batuak edo Zeelanda Berria bezalako beste herrialde batzuetan egiten den bezala. Asmoa ikasleak, gazteak direnetik, programazioaren oinarriko gaitasunez hornitzea da, irakurri eta idazteko gaitasunekin batera.



Iribas kontseilaria tailerlean parte hartu dutenetako batzuekin hitz egiten.

Programa datorren 2014-2015 ikasturtean ezarriko da Lehen Hezkuntzako bosgarren mailan eta, hurrengo ikasturtean, 2015-2016an, Lehen Hezkuntzako laugarren mailan ezarriko da. Edonola ere, pixkanaka ezarriko da, irakasleek eta ikastetxeek programa aplikatzeko behar den segurtasun eta ezagutzak eskura ditzaten. Horretarako, Hezkuntza Departamentuak, irailetik aurrera, webgune bat prestatuko du materialarekin eta programan parte hartuko duten irakasle guztiei prestakuntza eskainiko die.

Aurreikusi denez, proiektua 2014-2015 ikasturtearen azken hiruhilekoan jarriko da abian bosgarren mailan, eta prestatuta dauden ikastetxeetan bakarrik eskainiko da programa. Ondorengo urteetan, ekimena gainerako ikastetxeetara eta laugarren mailara gheadatuko da. Gerora, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) ere ezarriko da programa.

Ekimena ostiral honetan iragarri du José Iribas Hezkuntza kontseilariak robotika tailerretara egin duen bisitan. Aste honetan egin dituzte Iruñeko Planetarioan. Horietan, 8 eta 12 urte arteko

23 hurrek Lego NXT inguruan programatzen eta robotek erronka erraz batzuk ebatzi ahal izatea ikasi dute, lankidetzan eta taldekideekin koordinazioan jardunda.

Jolas eginda ikastea

Softwarea programatzeko proiektuak irakasteko, [Scratch](#) doako programazio-hizkuntza erabiliko da batez ere, baina ez hori bakarrik. Horren bidez joko, istorio eta animazio interaktiboak sor daitezke oso modu bisualean. Gainera, ikastetxeen eskura jarriko dira lanerako fitxak ariketak ikasleek egin ahal izateko, ordenagailuen gelara joan beharrik gabe.

Helburua ez da programatzaileak prestatzea, arrazoiketa eta analisisia eta Matematikan agertzen diren problemak ebatzea bezalako bitartekoak indartzea baino. Gainera, programazioa erakargarria eta eskuragarria den gai gisa aurkeztu nahi da, programatzen goiz ikasten duten ikasleek genero-estereotipo gutxiago izaten dituztelako ikasketa zientifiko-teknologikoetako ikasleekin alderatuta. Gainera, ikasketekin jarraitzeko eta diziplina horietako lanbideetan jarduteko erreparo gutxiago izaten dute.

Curriculumean halako programa gehitzea berria da Espainian, izan ere, Europako agintariak herritarrak trebetasun digitaletan alfabetizatze beharra dagoela behin eta berriz errepikatzen ari dira azkenaldian. Ez da nahiko irakurri edo idazten jakitearekin eta, berez, Europako Agenda Digitalean adierazitakoaren arabera, Europan, 2015ea, ezingo dira 900.000 kanpostu baino gehiago bete IKTen arloko prestakuntza faltagatik.

Proiektua Lehen Hezkuntzan edo Bigarren Hezkuntzan dagoeneko softwarea programatzen ari diren Nafarroako 20 ikastetxetan ezarri da. Hala ere, kasu horretan, hezkuntzako robotikari aplikaturikoa da eta ez Scratch programazio-hizkuntzari. Ikastetxe horiek Hezkuntza Departamentuak sustaturiko Zientziako eta Teknologiako Berrikuntza Zentroen Sarean borondatez daude sartuta.

Robotika-erakustaldia

Iribas kontseilaria, Planetarioak antolatutako tailerretako parte-hartzaileekin batera, Mechatronics Ants taldeko kideek egin duten robotika-erakustaldia ikustera joan da gaur eguerdian. Iragan ikasturtean, First Lego League robotika- txapelketako estatuko fasean roboten jokabide onenaren saria eskuratu zuten. Taldea Nafarroako ikasleek osatzen dute, eta guztiak dira MTorres enpresako langileen seme-alabak.

Erakustaldiaren bidez, tailerretan parte hartu duten 23 gazteek robotikak eskaintzen dituen aukerak ezagutu ahal izan dituzte.

Tailerrak Iruñeko Planetarioko Hezkuntza Robotikako Zentro sortu berriak antolatu ditu. Zentroa Hezkuntza Departamentuak, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Planetarioak sustaturikoa da. Zentroak irakasleentzako trebakuntza eta hezkuntza-robotikako proiektuak eta robot-maileguak garatzen dituzten ikastetxeentzako laguntza eta aholkularitza eskaintzen ditu, eta publiko orokorrarentzako jarduerak sustatzen ditu, adibidez, antolatu diren tailerrak.



Iribas kontseilaria Mechatronics Ants taldeak egin duen erakustaldian izan da.